

AKTA, 2006KO MAIATZAREN 23KOA

Organoa: Udal batzarra

Bilera mota: Berezia

Deialdia: lehenengoa

Eguna: 2006/05/23

Ordua: Hasiera 19:30 – Amaiera 20:30

Tokia: Udaletxeko areto nagusia

Bertaratuak

Alkatea:

Santiago Garmendia Olano

Zinegotziak:

Santiago Fermin Garmendia Gorostidi

Jose Ignacio Irastorza Garmendia

Joseba Mirene Garmendia Ustoa

Mikel Garmendia Suquia

Idazkaria:

Maria Soledad Alcayaga Garmendia

AZTERGAI ZERRENDA:

1.- 2005/09/22 ETA 2005/12/22KO BILERETAKO AGIRIAK ONESTEKO PROPOSAMENA

2.- ALKATE DEKRETUEN BERRI EMATEA

3.- 2006KO UDAL AURREKONTUA OSATZEN DUEN ESPEDIENTEA ONESTEKO PROPOSAMENA.

4.- 2005EKO UDAL AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA.

5.- 2006KO UDAL AURREKONTUAREN ALDAKETAKO LEHEN ESPEDIENTEAREN BERRI EMATEA. MODALITATEA: KREDITU ATXIKIPENA.

6.- 2006KO UDAL AURREKONTUAREN ALDAKETAKO 2. ESPEDIENTEA ONESTEKO PROPOSAMENA.

7.- GAINZAKO FRONTOIA BERRITZEKO OBREN LIKIDAZIOA ETA FAKTURAK ONESTEKO PROPOSAMENA, HALA NOLA FORU ALDUNDIARA

IGORTZEKO, ERAKUNDE HONEK ESKAINITAKO DIRULAGUNTZA JASOTZEARI BEGIRA.

8.- UDAL ONDASUNEN INBENTARIOA ONESTEKO PROPOSAMENA.

9.- UDAL SAREA 21 –UDALERRIKO EKINTZA PLANA ONESTEKO PROPOSAMENA.

10.- EREIN PROGRAMA 2005/2006.

11.- OSTATU ETA ETXEBERRI ERAIKUNTZEN PROIEKTUAK IDAZTEKO LANAK ESLEITZEKO ESPEDIENTEA ONESTEKO PROPOSAMENA.

ESAN EGINAK

1.- 2005/09/22 ETA 2005/12/22KO BILERETAKO AGIRIAK ONESTEKO PROPOSAMENA

Izenburuko bileretako agirien berri emanik, udal batzarrak, aho batez, erabaki du onestea aipatu agiriak, idatzita dauden bezala.

2.- ALKATE DEKRETUEN BERRI EMATEA

Ondorengo zenbakiekin egindako alkate dekretuen berri eman da:

2005/23a) eta 2005/37tik 2005/51ra eta 2006/01etik 2006/15era.

3.- 2006KO UDAL AURREKONTUA OSATZEN DUEN ESPEDIENTEA ONESTEKO PROPOSAMENA

2006ko udal aurrekontua osatzen duen espediente orokorra onartzeko proposamenaren berri emanik, Kontuen Komisio berezia, Administrazioa eta Gizarte Ongizate batzordeak egindako azken bileran diktaminatutakoarekin bat etorri, udal batzarrak, aho batez, erabaki du:

Onestea 2006ko udal aurrekontua osatzen duen espediente orokorra, jarraian adierazten den kapituluko emaitzarekin eta izapidean jartzea, indarrean dagoen legediak agintzen duen eran.

SARREREN EGOERA

<i>Kapitulua</i>	<i>Izena</i>	<i>€uroak</i>
1	Zuzeneko zergak	14.218,71.-
3	Tasak eta bestelako sarrerak	20.838,49.-
4	Transferentzia arruntak	175.571,41.-
5	Ondore-sarrerak	1.888,46.-
7	Kapital transferentziak	72.896,47.-
	<i>Guztira</i>	<i>285.413,54.-</i>

GASTUEN EGOERA

<i>Kapitulua</i>	<i>Izena</i>	<i>€uroak</i>
1	Pertsonal-gastuak	98.089,30.-
2	Gastuak ondasun arrunt eta zerb.	63.458,91.-
3	Finantza-gastuak	3.100,57.-
4	Transferentzia arruntak	23.986,70.-
6	Inbertsio errealak	87.538,14.-
7	Kapital-transferentziak	444,26.-
9	Finantza pasiboak	8.795,66.-
	<i>Guztira</i>	<i>285.413,54.-</i>

4.- 2005EKO UDAL AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA

Ondoren, 2006ko martxoaren 21ean udal honetako alkateak, dekretuz onetsitako 2005eko udal aurrekontuaren likidazioaren berri ematen da, bere emaitza hau delarik:

1.- Altxortegiko izakin likidoak, 2005-12-31n:	38.990,96.-
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2005-12-31n:		251.559,13.-
Aurrekontuko zordunak:	251.402,58.-	
Aurrekontuz kanpokoak:	156,55.-	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2005-12-31n:		31.789,78.-
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	27.719,25.-	
Sarrerren aurrekontuko hartzekodunak:	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	4.070,53.-	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	
4.- Altxortegi-gerakin gordina (1+2-3):		258.760,31.-
5.- Saldo kobragaitzak:	
6.- Altxortegi-gerakin likidoa (4-5):		258.760,31.-
7.- Finantzaketa lotua duten gastuetarako altxortegi-gerakina:		235.986,27.-
8.- Gastu orokorretarako altxortegi-gerakina (6-7):		22.774,04.-
9.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:		93.724,37.-
10.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:	
11.- Doiketak, altxortegi-gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:	
12.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:	
13.- Aurrekontu-emaitza (9+10+11+12):		93.724,37.-
14.- Txerta daitezkeen kreditu-gerakinak:		162.840,31.-
15.- Txertatu ezin diren kreditu-gerakinak:	
16.- Kreditu-gerakinak, guztira (14+15):		162.840,31.-

5.- 2006KO UDAL AURREKONTUAREN ALDAKETAKO LEHEN ESPEDIENTEAREN BERRI EMATEA. MODALITATEA: KREDITU ATXIKIPENA

Jarraian, 2006ko martxoaren 22an udal honetako alkateak, dekretuz onetsitako 2006ko udal aurrekontuaren aldaketako lehen espedientearen berri ematen da, kapitulukako laburpena ondorengoa izanik:

Aurrekontu partida		Kd. (7)	Deskripzioa	Zenbatekoa
Aurreko ekitaldikoa	Ekitaldi honetakoa			
1.0000.600.440.00. 01	1.0000.600.440.00.0 1		Plazako kalteen konponketa. Frontoia berritzeko proiekt. obrak	3.966,31.-
1.0000.692.452.00. 00	1.0000.692.452.00.0 0			158.874,00.-
TXERTATU BEHARREKO KREDITUAK GUZTIRA				162.840,31.-

2006ko Aurrekontuan kredituak txertatzea finantzatzeko erabili beharreko finantza-baliabideak.

Sarreraren kontzeptua		Kd. (8)	Deskripzioa	Zenbatekoa
Aurreko ekitaldikoa	Ekitaldi honetakoa			
2.0000.870.000.00. 01	2.0000.870.000.00.01		Diruzaintzako gerakina	162.840,31.-
TXERTATU BEHARREKO KREDITUAK GUZTIRA				162.840,31.-

6.- 2006KO UDAL AURREKONTUAREN ALDAKETAKO 2. ESPEDIENTEA ONESTEKO PROPOSAMENA

2006ko udal aurrekontuaren aldaketarako 2. espedientea onartzeko proposamenaren berri emanik, Kontuen Komisio berezia, Administrazioa eta Gizarte Ongizate

batzordeak egindako azken bileran diktaminatutakoarekin bat etorritik, udal batzarrak, aho batez, erabaki du:

Onestea 2006ko udal aurrekontuaren aldaketarako 2. espedientea, jarraian adierazten den kapitulukako emaitzarekin eta izapidean jartzea, indarrean dagoen legediak agintzen duen eran.

UDALAREN 2006KO AURREKONTUA

KREDITUAK GEHITZEA

<i>Kapitulua</i>	<i>Izena</i>	<i>Euroak</i>
4	Transferentzia Arruntak	3.010,00.-
6	Inbertsio errealak	72.150,00.-
	<u><i>Guztira</i></u>	<u>75.160,00.-</u>

FINANTZAKETA

<i>Kapitulua</i>	<i>Izena</i>	<i>Euroak</i>
8	Finantza Aktiboak	75.160,00.-
	<u><i>Guztira</i></u>	<u>75.160,00.-</u>

7.- GAINZAKO FRONTOIA BERRITZEKO OBREN LIKIDAZIOA ETA FAKTURAK ONESTEKO PROPOSAMENA, HALA NOLA FORU ALDUNDIARA IGORTZEKO, ERAKUNDE HONEK ESKAINITAKO DIRULAGUNTZA JASOTZEARI BEGIRA

Herriko frontoia berritzeko egindako obren likidazioaren eta horri dagokion fakturen berri emanik, Kontuen Komisio berezia, Administrazioa eta Gizarte Ongizate batzordeak egindako azken bileran diktaminatutakoarekin bat etorritik, udal batzarrak, aho batez, erabaki du:

A) Onestea:

- 1.- Obren zuzendariak egindako likidazioa 157.530,57.-€uroko kopuruz.
- 2.- Onestea obren exekuzioari dagokion faktura 155.210,57.-€uroko kopuruz.
- 3.- Onestea obren zuzendaritzari dagokion faktura 2.320,00.-€uroko kopuruz.

B) Gipuzkoako Foru Aldundiara igortzea aurreko atalean onetsitako dokumentazioa, erakunde horrek eskainitako dirulaguntza jasotzeari begira, onetsitako fakturak ordaintzearen kaltetan gabe.

8.- UDAL ONDASUNEN INBENTARIOA ONESTEKO PROPOSAMENA

Eguneratutako udal ondasunen inbentarioa osatzen duen espediente orokorra onesteko proposamena egiten da eta Kontuen Komisio berezia, Administrazioa eta Gizarte Ongizate batzordeak egindako azken bileran diktaminatutakoarekin bat etorriz, udal batzarrak, aho batez, erabaki du:

Onestea aipatu espedientea eta inbentarioko ondasun erregistragarri guztiak jabetza erregistroan inskribatzeko izapideak egitea.

9.- UDAL SAREA 21-UDALERRIKO EKINTZA PLANA ONESTEKO PROPOSAMENA.

Udal sarea 21ean sartutako Gaintzako ekintza plana onesteko proposamenaren berri emanik, Kontuen Komisio berezia, Administrazioa eta Gizarte Ongizate batzordeak egindako azken bileran diktaminatutakoarekin bat etorriz, udal batzarrak, aho batez, erabaki du:

Onestea aipatu ekintza plana.

10.- EREIN PROGRAMA 2005/2006.

Puntu honetan, EREIN programara aurkeztutako espedienteen berri emanaz gain, espediente horietan sartutako proiektuei buruzko informazio orokorra ere ematen da, gaiaren garrantzia kontuan hartuta, udal artxiboan konstantzia gera dadin.

2005eko ekitaldian bi eskaera aurkeztu ziren, Erein programaren kontura diru laguntzak lortzeko,

1.- OSTATU ERAIKUNTZA UDAL ZERBITZUETARAKO PRESTATZEKO – Ez zen dirulaguntzarik eman 2005eko programaren kontura, gehien bat, bi ekitaldietan laguntzea aurreikusi zelako eta lehentasuna Etxeberriko proiektuari eman zitzaiolako, bera izango baita OSTATU zaharreko proiektua bideragarria egiteko udal honek erabiliko duen bitartekoa, puntu honen bigarren atalean azalduko den bezala.

Hala ere, hasiera hasieratik, udala pausoak ematen joan da etxe hortako maizterrearekin adostasun batetara iristeko, alokairu kontratua onez ebazteko, alegia.

Horretarako kontuan eduki behar da, OSTATU eraikuntza eraberritzeko proiektua udalak dituen beharrak betetzeko denez, proiektu hori guztien interesekoa dela eta ondorioz, udalak maizterrari etxea utziarazteko eskubidea daukala, horretarako aplikazioko legediak aukera desberdinak eskeintzen dizkiolarik, desahuzio

administratiboa edo desjabetza, adibidez, bien arteko akordioa lortzen ez duen kasurako, udal honen nahia den bezala.

Halaber, udalak ezin du ahaztu, etxe hortako maiezterra den Laura Albizu Beraza anderea, aspaldian ez dela bertan bizi, herri honetan erroldatuta jarraitzen duen arren.

Hori horrela bada ere, Alkateak informatzen du azkeneko lan bileran erabaki bezala, 24.000.-€uroko eskaintza ekonomikoa egin zaiola Laura Albizu Beraza andereari, bere seme Carlos Oiarbide Albizuren bidez, OSTATU etxeko alokairua amaitu eta etxea berehala libre uzteagatik. Aldi berean, Etxeberri etxean eraiki nahi diren 5 etxebizitzetako bat, horretarako eratuko den lehiaketako baldintzetan erosteko lehentasuna ere aukeran jarri zaio eskaintza ekonomiko horrekin batera. Oraindik ez du erantzunik eman.

2.- ETXEBERRI ERAIKUNTZAN 5 ETXEBIZITZA ETA TRASTELEKUAK PRESTATZEA – Eusko Jaurlaritzako Landaren eta Itsasertzaren Garapenerako Zuzendariak 2005eko abenduaren 21ean, ebatzi zuen 67.613,85.-€uro jotzen duen laguntza ematea, inbertsioaren gauzaketa eta ordainketa derrigorrez 2006ko abenduaren 31a baino lehen gauzatu beharko direlarik.

Etxe honen lehen solairuko etxebizitza ordea Gema Arrugaeta Montero andereinoari alokatuta dauka udalak, 15 urterako, 2008ko abenduan amaitzen delarik dagokion kontratua.

Hori horrela, kontuan hartuta, 2005eko EREIN PROGRAMAREN kontura, Etxeberriko proiektua bideratzeko lortu dela diru laguntza eta itxaropen handia dagoela 2006ko ekitaldiko programaren gain OSTATU ERAIKUNTZA UDAL ZERBITZUETARAKO PRESTATZEKO proiektuarentzako laguntza lortzeko, beti ere proiektu hori bideragarria ikusten bada behintzat, horretarako oso garrantzitsua izanik, ETXEBERRIKO proiektua exekutatzeari ezarritako epean, proiektu horrek bi helburu nagusi baidaramatza; herrian dagoen beharrari erantzuteko, prezio jakineko etxebizitzak eraiki eta merkaturatzea eta haien etekinekin OSTATU etxea udal zerbitzuetarako prestatzeko proiektua zati batean finantziatzea, EREIN PROGRAMAK laguntzen ez duen zatian, hain zuzen.

Aurrean esandako guztia kontuan hartuta eta udalaren baliabide ekonomikoak oso eskasak direla jakinda, -hori baieztatzeko, bilera honen 4. puntuan kontu eman den, 2005eko aurrekontuaren likidazioaren emaitza aztertu besterik ez dago (altxortegi gerakin gordina: 258.760,31.-€- Txertatutako kredituak 162.840,31.-€ = 95.920,00.- € Gainera emaitza horri 82.870,67.-€ kendu behar zaio, 2005/12/31n udalak kobratzear zeukan mailaguarena. Ondorioz, 2005eko abenduaren 31n 13.049,33.-€uro besterik ez zitzaion geratu udalari) korporazio hau ahalegindu da ETXEBERRI etxeko behe solairuko maizterrearekin, berak alokatuta daukan etxebizitza libre uzteko adostasun batetara iristen, bi alderdientzat egokienak izan daitezkeen irtenbideak bilatzen saiatuz, horretarako honako eskaintza hauek egin eta aukeran jarri dizkiolarik, azkeneko lan bileran erabaki bezala:

- a) Etxeberri ondoan dagoen eraikuntzako etxebizitzan ostatatu, alokairu kontratuaren indarraldia amaitu arte eta berak nahi badu, Etxeberri etxean eraiki asmo diren etxebizitzetariko bat erosteko lehentasuna eman, orokorrean ezartzen diren baldintza berdinetan. Oraindik oinarriak finkatu gabe daude, baino informazio aurrerapen gisa 150.000,00.-€uroko kopurua aipatu da.
- b) 18.000,00.-€uro ordaindu, kontratua berehala deuseztatzeagatik.

Maizter hori Gema Arrugaeta Montero Andereinoa da. Honek udalak egindako eskaintzak ez ditu onartu eta ordez, ondorengo bi proposamen hauek aukeran jarri dizkio, alokairu kontratua deuseztatze kontura:

- a) Gaintzako udalerrian lur sail bat ematea, bertan txabola bat egiteko udal baimenarekin.
- b) 48.000,00.-€uroko kalteordaina ordaintzea.

Proposamen horiek ez dira onargarriak zeren, udal honen usteetan biak ere arrazoizkoak ez baitira, lehendabizikoa desitxurosoa eta zentzugabea delako eta bigarrena neurrigabea izateagatik.

Gaiarekin amaitzeko esan behar da, 2006ko EREIN programari dagokionez, Ostatu etxeko proiektua berriro ere aurkeztu dela, nahiz eguneratutako aurrekontuarekin eta dirulaguntza oraindik erabakitzeaz dagoela.

Aipatu informazioa entzun ondoren, Kontuen Komisio berezia, Administrazioa eta Gizarte Ongizate batzordeak egindako azken bileran diktaminatutakoarekin bat etorritik, udal batzarrak, aho batez, erabaki du:

Berrestea Ostatu eta Etxeberri etxeak libratzeko udal honetako alkateak egindako proposamenak, erabaki honen zati azaltzailean adierazitako terminoetan.

11.- OSTATU ETA ETXEBERRI ERAIKUNTZEN PROIEKTUAK IDAZTEKO LANAK ESLEITZEKO ESPEDIENTEA ONESTEKO PROPOSAMENA.

Ikusirik izenburuko eraikuntzen proiektua idazteari begira jasotako informazioa.

Kontuan hartuta oraingoz egin nahi diren obren exekuzioko proiektua enkargatzea nahikoa dela, ez baitauka zentzurik lan horien zuzendaritza kontratatzeak, gauzak dauden bezala ikusita.

Aurreko puntuan eskeinitako informazioa kontuan izanik, Kontuen Komisio berezia, Administrazioa eta Gizarte Ongizate batzordeak egindako azken bileran diktaminatutakoarekin bat etorritik, udal batzarrak, aho batez, erabaki du:

OSTATU ERAIKUNTZA UDAL ZERBITZUETARAKO egokitzeko eta ETXEBERRI etxean 5 etxebizitza berri eraikitzeko proiektu teknikoa idazteko lanak esleitzeko izapideak egitea eta udal honetako alkatea ahalmentzea lan horiek eleitzeko, indarrean dagoen administrazio publikoen kontratuak arautzen dituen legedipean.

Besterik gabe, bilera amaitu da, goian adierazitako leku eta orduan eta nik, idazkaria naizen honek horren fede eman dut, agiri honekin.

GAINZAKO UDAL BATZARRAK, 2006KO MAIATZAREN 23AN EGINDAKO BILERAN, ONDORENGO ERABAKIA HARTU DU:

Zeina ziurtatzen dudan, dagokion ondorioetarako, bilerako agiriak dioenera geratuz, Gaintzan, 2006ko ekainak 1.

IDAZKARI KONTUHARTZAILEA

Stua: Marisol Alcayaga Garmendia